

EUSKADIKO HERRITARRAK COVID-19REN AURREAN (2020ko maiatza) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia izan da Euskadiko herritarrek Covid.19aren hedapenak sortutako egoeraren inguruan dituzten iritzi eta jarrerak. Landa lana 2020ko apirilaren 27a eta 29a bitartean egin zen.

KEZKA

Kezka handia inguruko jendearen osasunagatik eta ondorio ekonomikoengatik

Euskal herritarrak oso kezkatuta agertzen dira koronabirusaren hedapenagatik; %35 oso kezkatuta daude eta %50 nahikoa kezkatuta.

Gutxiago dira eurak gaixotzeagatik kezkatuta daudenak (%71), inguru hurbileko norbait gaixotzeagatik kezkatuta daudenak baino (%91).

Ondorio ekonomikoei dagokienez, %43 oso kezkatuta eta %37 nahikoa kezkatuta daude krisiak euren familiaren ekonomian izan dezakeen eraginagatik. Are handiagoa da kezka Euskadiko ekonomian izan ditzakeen ondorioengatik: %61 oso kezkatuta daude eta %36 nahikoa.

KORONABIRUSARI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Neurriak betetzean jendea erlaxatzen ari den pertzepzioa

Herritarren %76k diote koronabirusaren hedapena geldiarazteko ezarritako neurriak pertsonalki asko betetzen ari direla, eta beste %22k ezente. Gainera, %57k eta %31k diote, hurrenez hurren, oso edo nahikoa konbentziturata betetzen dituztela neurriak; %10ek bakarrik esaten dute neurriak betetzen ari direla ez oso konbentziturata edo batere konbentziturata gabe.

Txikiagoa da gainerako herritarrek neurriak betetzeko mailari buruzko pertzepzioa: %24k uste dute gainerako herritarrak asko betetzen ari direla, %61ek ezente, %12k uste dute gutxi betetzen ari direla eta %1ek batere ez. Gainera, inkestatuen %59k uste dute konfinamendua luzatzen doan heinean, herritarrak erlaxatzen ari direla neurriak betetzean. %11k uste dute neurriak gero eta zorrotzago betetzen ari direla, eta %26k ez dela aldatu.

Herritarren %57 ados daude 14 urtetik beherako haurrei etxetik ateratzea baimentzen dien arauarekin, %8k uste dute permisiboagoa izan beharko litzatekeela, %23k ez litzatekeela hain permisiboa izan behar eta %9ren ustez haurrei ez litzateke etxetik ateratzen utzi behar.

Pertsona helduak paseatzera edo kirola egitera ateratzeko aukera ematen duen neurria oraindik iragarri gabe zegoen inkesta egin zenean, baina aukera horri buruz galdetuta, inkestatuen %66k egokitzat jo zuten pertsona heldu guztientzat, %10en ustez egokia litzateke 65 urtetik beherakoentzat, %8ren iritzi bakarrik adin horretatik gorakoentzat, eta %13ren ustez ez litzateke baimenik eman behar paseatzera edo kirola egitera ateratzeko.

KONFINAMENDUA

Gehiengoak ondo darama

Euskal herritarren %13 etxean bakarrik daude konfinatuta, %83 bere familiako pertsonekin eta %3 beste pertsona batzuekin.

Inkestatuen %52ren iritzi konfinatuta dauden etxean elkarbizitza oso ona da, eta nahikoa ona %45entzat.

Inkestatuen %20k diote oso ondo daramatela konfinamendua, %65ek nahikoa ondo, %12k nahiko gaizki eta %3k oso gaizki.

Beriaekin bizi diren 14 urtetik beherakoek eta harreman estua duten 65 urtetik gorakoek konfinamendua zer moduz daramaten galdetuta, inkestatuek pertzepzio okerragoa adierazi dute pertsona edadetuei buruz haurrei buruz baino. %26k uste dute adin nagusikoek oso edo nahikoa gaizki daramatela eta %10ek uste dute iritzi hori bera haurrei buruz.

Euskal herritarren %33 astean behin ateratzen dira etxetik erosketak egiteko, %29 astean behin baino gehiagotan eta %13 astean behin baino gutxiagotan. %12 egunero ateratzen dira eta beste hainbeste inoiz ez.

Lan egiten dutenen %58k (ERTEan, bajaran eta abar daudenak barne) ez dira inoiz etxetik ateratzen lanera joateko eta %29 egunero ateratzen dira.

Herritarren %27k beldur, estres edo antsietate asko edo dezente sentitzen dute etxetik ateratzean. %37k lasaitu edo askatasun sentazioa sentitzen dute, asko edo dezente.

Herritarren %43k diote konfinamenduan zehar egunero egiten dutela ariketa fisikoa etxean, %17k astean behin baino gehiagotan, %22k noizean behin eta %19k ez dute ariketa fisikorik egiten.

Konfinamenduan zehar, jende gehiena lehen bezala ari da elikatzen, %12 lehen baino modu osasungarriagoan eta %12 osasunaren aldetik lehen baino okerrago.

OSASUN KRISIAREN KUDEAKETA

Euskal instituzioen kudeaketaren balorazio ona

Herritarrek Oitk 10erako eskalan 8,2 punturekin baloratu dute Covid-19a duten gaixoei Osakidetza ematen ari den osasun arreta.

Euskadiko osasun agintariak ematen ari diren informazio eta gomendioen argitasuna 6,8 punturekin baloratu dute, Oitk 10erako eskalan.

Puntuazio hori bera (6,8) eman diote krisi honetan euskal osasun agintariak gizartearen beharrei ematen ari diren erantzunari.

Euskal herritarren %49k uste dute euskal osasun sistemaren erantzuna gainerako komunitateetako baino hobea izaten ari dela, %35ek uste dute berdina dela eta %1ek bakarrik okerragoa.

Instituzioen kudeaketaren balorazioari dagokionez, euskal herritarrek 6,7 punturekin baloratu dute Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa, 5,5 punturekin Espainiako Gobernuarena, eta 4,9 punturekin Europar Batasunarena.

ONDORIO EKONOMIKOAK

Gehiengoak uste du euskal ekonomia ahuldu egingo dela urte batzuetarako

Koronabirusaren krisiaren aurretik lanean ari zen jendeari galdetuta, %26k diote momentu honetan etxetik telematikoki ari direla lanean, beste %26 lanera joaten dira funtsezko sektore batean, beste %7 lanera joaten dira nahiz eta bestelako sektoreetan lan egin, %18 ERTE batek eraginda daude, %6 bajaran daude osasun arrazoiengatik eta %3k negozio bat dute eta itxi egin behar izan dute.

Inkestaturen %10ek diote, koronabirusaren krisiaren ondorioz, beren egoera ekonomikoa asko okerragotu dela, eta %28k pixka bat okerragotu dela. Hamarretik seik diote euren egoera ez dela aldatu.

Herritarren %37k uste dute urtebete barru euren egoera ekonomikoa oraingoa baino okerragoa izango dela, %39k uste dute berdina izango dela, eta %17k hobea.

Euskal ekonomian izango diren ondorioei buruz, gehiengoaren iritziz Euskadiko ekonomia urte batzuetarako ahulduta geldituko dela; %19k uste dute ekonomia azkar errekuperatuko dela eta %9 ezkorragoak dira, horien ustez oso hondatuta geldituko da urte askotarako.

ONDORIOAK BALIOETAN

Gehiengoak ez du uste krisi honek gizarte bezala hobeak edo okerragoak egingo gaituenik

Herritarren %29k bere ingurukoekin lotura handiagoa sentitzen dute krisiaren aurretik baino.

%34k uste dute krisi honen ondorioz etorkizunean hobeak izango garela gizarte bezala eta %61en ustez ez gaitu aldatuko.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 750 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,7$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2020ko apirilaren 27a eta 29a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 6a